DEPARTAMENTO DE JUSTICIA  
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA  
Registro de Asociaciones

## HELBIDE SOZIALA

### 6. artikulua

NIESSEN eraikin zaharra izandakoan dago ELKARTEAREN helbide soziala, hain zuzen ere Errenteriako Alfonso XI.aren kalean, udalak lagatako lokal batean.

Elkartek beste lokal batzuk eduki ahal izango ditu Autonomia Erkidegoan, Batzar Nagusiak hori erabakitzen badu.

## LURRALDE EREMUA

### 7. artikulua

ELKARTEAREN jarduerak, oro har, Errenterian garatuko dira, baina beste edozein tokitara ere zabal daitezke, besteren laguntza-eskaerei jarraiki.

## IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

### 8. artikulua

Elkartea iraunkorra izateko eratu da, eta Ezohiko Batzar Nagusiaren erabakiak eraginda soilik desegingo da, VI. kapituluaren xedatutakoaren edo legetan aurreikusitako edozein arrazoiren arabera.

Elkartearen barne-antolakuntzak eta funtzionamenduak demokratikoak izan beharko dute, pluraltasuna erabat errespetatuz. Elkartearen oinarrizko eskubidearen edozein alderdi aintzat hartzen ez duten itunak, estatutu-xedapenak eta erabakiak baliogabeak izango dira eskubide osoz.

## BIGARREN KAPITULUA: GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANOAK

### 9. artikulua

Honako organo hauen esku izango dira ELKARTEAREN gobernu eta administrazioa:

- Bazkideen Batzar Nagusia izango da organo gorena, eta ohiko zein ezohiko batzarretan biltzeko aukera izango du.
- Zuzendaritza Batzordea, zuzendaritza iraunkorreko organo gisa.

## OHIKO BATZAR NAGUSIA

### 10. artikulua

Bazkideen bilerak BATZAR NAGUSIA osatzen du. Elkartearen goreneko organo subiranoa da, eta 18 urte bete dituzten bazkide guztiek izango dute bertan hitz egiteko eta botoa emateko aukera.

### 11. artikulua

OHIKO BATZAR NAGUSIA urtean behin deitu behar da gutxienez, urte bakoitzeko lehen 6 hilabeteen barruan eta Zuzendaritza Batzordeak aipatutako egunean, 12. artikuluko a), b) eta c) ataletan jasotako erabakiak betetzeko.

### 12. artikulua

Honako hauekin zerikusia duten erabakiak OHIKO BATZAR NAGUSIAREN eskumenak dira:

- Elkartearen jardun-plan orokorra onartzea.



- b) Hurrengo ekitaldiko aurrekontua eta urteko kontuak aztertu eta onartzea.
- c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
- d) Presidente, idazkaria, diruzaina, eta, hala badagokio, kide anitzeko gobernu-organoko gainerako kideak hautatu eta kargugabetzea, baita horiek ikuskatu eta kontrolatzea ere.
- e) Beste elkarte batzuekiko federazio- eta konfederazio-egintzak, baita elkarte horietako bat uztea ere.
- f) Higiezin ondasunak eskuratu edo besterentzeko aukera onartzea.
- g) Gobernu-organoko kideei ordaintzeko erabakia, hala badagokio.
- h) Ohiko kuotak eta kuota bereziak zehaztea, nahiz eta Batzar Nagusiak ahalmen hori gobernu-organismoaren esku utz dezakeen, esanbidezko erabakiaren bitartez.
- i) Bazkideak behin betiko banantzeko erabakia hartzea.
- j) Beste edozein gizarte-organori esleitu ez zaion beste edozein eskumen.

### 13. artikulua

OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO deialdia idazki bidez egingo da, bileraren tokia, eguna eta ordua adierazita, baita gai-zerrenda adierazita ere, aztertu beharreko gaiak esanbidez jasota. Deialdiaren eta Batzarra lehen deialdian egiteko adierazitako egunaren artean hamabost egun igaro beharko dute gutxienez. Batzar Nagusia bigarren deialdian zer datatan eta zer ordutan bilduko den jaso ahal izango da, hala badagokio, eta bi bileren artean gutxienez orduerdiko epea beharko da.

### 14. artikulua

EZOHIKO BATZAR NAGUSIAREN lehen deialdian bazkideen laurdena azaltzen ez bada, batzarra bigarren deialdian egingo da, botoa emateko eskubidearekin bertaratutako bazkideen kopurua edozein izanik ere.

### 15. artikulua

Edozein bazkidek beste bazkide baten bitartez bete dezake OHIKO BATZAR NAGUSIAN dagokion ordezkaritza, Zuzendaritza Batzordeari idazki bidez jakinarazi ondoren. Bilkura hasi baino gutxienez ordu-erdi lehenago egon behar du ordezkaritza-dokumentu horrek Batzarreko idazkariaren eskura. Elkartearen helbide sozialaren hiriaz bestelako hiritan bizi diren bazkideek postaz igorri ahal izango dute beren ordezkaritza egiaztatzen duen agiria.

### 16. artikulua

Bertaratuen edo ordezkatuaren gehiengo sinpleaz onartuko dira OHIKO BATZAR NAGUSIAREN erabakiak, betiere baiezkotako botoak ezezkotako botoak baino gehiago badira. Nolanahi ere, jarraian aipatutako erabakietarako gehiengo zabalago bat beharko da bertaratuen edo ordezkatuaren aldetik, hau da, baiezkotako botoek emandako boto baliadunen erdia baino gehiago beharko dute:

- a) Ondasunak eskuratzea edo besterentzea
- b) Ordezkaritza-organoko kideei ordaintzea

## EZOHIKO BATZAR NAGUSIA

### 17. artikulua

Honako hauekin zerikusia duten erabakiak EZOHIKO BATZAR NAGUSIAREN eskumenak dira:

- a) Estatutuak aldatzea.
- b) Elkartea desagitea.
- c) Larria izanik hurrengo Ohiko Batzar Nagusirako utzi ezin daitekeen edozein gai ebaztea, dagokion gai-zerrendan jasotako gaiak bakarrik aztertuko direla kontuan hartuta.

### 18. artikulua

EZOHIKO BATZAR NAGUSIA beharrezkoa denean egingo da, Zuzendaritza Batzordearen irizpideari jarraiki edo bazkideen erdia gehi batek eskatzen badute.



JUSTIZIA ETA HERRI  
ADMINISTRATZIO SAILA  
Euzko Legegintza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA  
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA  
Basque Government

19. artikulua

Gai-zerrendan bildutako gaiak bakarrik aztertuko dira EZOHIKO BATZAR NAGUSIAN.  
EZOHIKO BATZARREN bileretan 13., 14. eta 15. artikuluetako eduki osoa aplikatzeko aukera izango da.

20. artikulua

Bertaratuen edo ordezkatuena gehiengo sinpleaz onartuko dira EZOHIKO BATZAR NAGUSIAREN erabakiak, betiere baiezkotako botoak ezezkotako baino gehiago badira. Nolanahi ere, jarraian aipatutako erabakietarako gehiengo zabalago bat beharko da bertaratuen edo ordezkatuena aldetik, hau da, baiezkotako botoek emandako boto baliadunen erdia baino gehiago beharko dute:

- a) Elkartea desagitea.
- b) Estatutuak aldatzea.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

21. artikulua

Zuzendaritza Batzordea da elkartearen interesak kudeatzen eta ordezkatzeko dituen ordezkari-arganoa, Batzar Nagusiaren xedapen eta zuzentzauei jarraiki. Bazkideek bakarrik izango dute ordezkari-arganoan parte hartzeko aukera.

Zuzendaritza Batzordeak gehienez 9 kide eta gutxienez 7 izango ditu, hau da, presidentea, presidenteordea, idazkaria, diruzaina eta bokalak, guztiak ere 18 urtez gorakoak, eta elkarteak kopuru hori handitzeko erabakia har dezake egoki ikusten badu.

ZUZENDARITZA BATZORDEKO kide horiek ez ezik, jardunean dauden Batzordeek ordezkari bana izan dezakete batzorde horren bileretan, baina batzordeekin zerikusia duten gai espezifikoak aztertu behar direnean bakarrik, eta ordezkari horiek hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute.

22. artikulua

ZUZENDARITZA BATZORDEA hilean behin bilduko da gutxienez, baita presidenteak egokitzen jotzen duen guztietan ere, betiere zirkunstantziak horrelakorik eskatzen badute.

23. artikulua

Zuzendaritza Batzordeko kideak, urtebetean, adierazitako bileretara arrazoi justifikaturik gabe hiru aldiz jarraian edo lautan aldizka bertaratzen ez badira, dagokion kargua uztea eragingo du horrek.

24. artikulua

Batzar Nagusiak aukeratuko ditu Zuzendaritza Batzordea osatuko duten karguak, eta lau urtez iraungo dute, salbu eta Batzarrek propio ezeztatzen baditu, eta berriaz aukeratu ahal izango da orduan Zuzendaritza Batzordea. Bi urtean behin, Batzordea oso-osorik berrituko da.

25. artikulua

Zuzendaritza Batzordeko kideek honako hauek bete beharko dituzte ezinbestean:

- a) Adin nagusikoa izatea, eskubide zibilak guztiz erabiltzeko moduan egotea eta bateraezintasun-arrazoi baten eraginpean ez egotea, indarreko legerian ezarritakoari jarraiki.
- b) Estatutuaren aurreikusitako moduan izendatua izatea.
- c) Erakundeko bazkidea izatea.

26. artikulua

Ohiko Batzarrek Zuzendaritza Batzordeko kideak izendatuko ditu, eta, jarraian, kideak karguaz jabetuko dira eta kargua onartuko dute. Hala badagokio, Batzar Nagusiak Zuzendaritza Batzordeko kideei dieta eta gastuak ordaintzeko erabakia har dezake.

27. artikulua

Honako kasu hauetan utziko dute kargua Zuzendaritza Batzordeko kideek:

- a) Agintaldiaren epea amaitzea.
- b) Dimisioa.



- c) Bazkide izateari uztea edo ezintasun-arrazoiren batean sartzea
- d) Batzar Nagusiak erabakitako ezeztatzea Estatutu hauen 24. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuta.
- e) Heriotza.

Kargua uztea a) atalean aurreikusitako arrazoiarengatik gertatzen bada, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute lehen Batzar Nagusia egin arte, eta bertan aukeratuko dira kargu berriak.

b), c) eta e) kasuetan, Zuzendaritza Batzordeak berak beteko du lanpostu hutsa behin-behineko izendapenaren bidez, eta Batzar Nagusiaren erabakipean jarriko da berretsi edo ezeztatu; berresten bada, dagokion izendatzeari ekingo zaio. Organo horren osakerari buruzko aldaketa guztiak Elkartearen erregistroari jakinaraziko zaizkio.

## 28. artikulua

Honako hauek dira ZUZENDARITZA BATZORDEAREN esleipenak:

- a) Elkartearen kudeaketa arrunta zuzentzea, Batzar Nagusiaren norabideen arabera eta haren kontrolpean.
- b) Elkarteak garatu beharreko jarduerak programatzea.
- c) Gastuen eta diru-sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera Batzar Nagusiari aurkeztea, onar ditzan.
- d) Batzar Nagusiaren bileren gai-zerrenda egitea, baita ohiko eta ezohiko batzar nagusien deialdia erabakitzea ere.
- e) Bazkideek egiten dituzten proposamen edo iradokizunei erantzutea, horri buruzko neurriak hartuta.
- f) Estatutu hauetan jasotako guztia interpretatzea eta hutsuneak betetzea, betiere elkartearen arloan indarrean dagoen lege-araudia betez.
- g) Batzar Nagusiak esanbidezko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak betetzea, betiere eskumen horien ardura osoa Batzar Nagusiari ez badagokio.

## 29. artikulua

Presidenteak halakorik erabakitzen duen orotan egingo ditu bilkurak Zuzendaritza Batzordeak, dela ekimen propioz, dela Batzordeko edozein kidek eskatuta. Presidenteak izango da buru, eta hura ez badago, presidenteordea; horietako inor ez badago, Batzordeko kide zaharrenak beteko ditu lan horiek.

Batzordearen erabakiak baliozkoak izateko, bertaratuen botoen gehiengoaren bidez hartu beharko dira erabaki horiek, eta kideen erdia bertan egotea beharrezkoa izango da. Berdinketarik gertatuz gero, presidentearen botoak erabakiko du.

Idazkariak bilkuren akta jasoko du, eta dagokion liburura transkribatu beharko du.

## PERTSONA BAKARREKO ORGANOAK

### PRESIDENTEA

## 30. artikulua

Elkarteko presidenteak hartzen du bere gain haren legezko ordezkaritza, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Nagusiak hartutako erabakiak betearaziko ditu; txandaka izango da erakunde bakoitzeko presidente.

Presidenteak honako eskumen hauek edukiko ditu:

- a) Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Nagusiak egiten dituzten bilkurak deitzea eta amaitutzat ematea, batzaren eta bestearen deliberamenduak zuzentzea, eta kalitateko botoaz erabakitzea bozketetan berdinketa izanez gero.
- b) Elkartearen jardura-plana Zuzendaritza Batzordeari proposatzea, haren zereginak bultzatuz eta zuzenduz.
- c) Behar bezala erabakitako ordainketak agintzea.



Zuzendaritza  
EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
JUSTIZIA ETA HERRI  
ARRAZA ZERBATA  
Elkarteen Erregistroa

- d) Sor litezkeen gaiak modu urgentean erabakitzea, eta Batzordeari horren berri ematea egiten duen lehen bilkuran,
- e) Batzar Nagusiak esanbidezko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak betetzea, betiere eskumen horien ardura osoa Batzar Nagusiari ez badagokio.

## PRESIDENTEORDEA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA  
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA  
Registro de Asociaciones

### 31. artikulua

Presidenteordeak presidentearen ordezkari jardungo du azken hori ez dagoenean gaixo dagoelako edo beste zereginetan dabilelako, eta presidentearen betekizun guztiak bete beharko ditu kasu horretan. Era berean, presidenteari hari eskuordetutako eskumen guztiak beteko ditu.

## IDAZKARIA

### 32. artikulua

Idazkariak honako hauek bete behar ditu:

- a) Srtzeko eskaerak jaso eta izapidetzea, fitxategia eta Bazkideen Erregistro Liburua eramatea eta Akten Liburua zaindu eta idazteaz arduratzea.
- b) Era berean, Elkarteen gaian, indarrean dauden legezko xedapenak betetzen direla zainduko du, Erakundearen dokumentazio ofiziala zainduz, Liburuen eta artxibo sozialen edukia egiaztatuz, eta agintaritzaren eskudunari helaraziz Zuzendaritza Batzordeak izendatzeari eta helbide sozialen aldaketari buruzko arauzko komunikazioak.

## DIRUZAINA

### 33. artikulua

Diruzainak honako hauek bete behar ditu:

- a) ELKARTEAREN diru-sarrera eta gastu guztiez arduratzea, ZUZENDARITZA BATZORDEAREN oniritzirik gabe inolako konturik ezin dezakeela ordaindu kontuan hartuta.
- b) Urteko diru-sarrera eta gastuen aurrekontua formalizatzea, baita joan den urteko kontuen egoera ere. Txosten hori ere Batzar Nagusiari helaraziko zaio, onar dezan.

## HIRUGARREN KAPITULUA

## BAZKIDEAK

### 34. artikulua

ELKARTEAK bazkide kopuru mugagabea izango du, eta edonor izan daiteke bazkide, betiere, adin nagusikoa izanik eskubide hori gauzatzea galarazten dion lege-baldintzaren baten eraginpean ez badago eta gaitasuna mugatu ez bazaio epai judizial irmo baten bitartez.

Bazkide izateko eskaera guztiak ZUZENDARITZA BATZORDEARI helaraziko zaizkio, eta batzordeak onartu edo ez ebatziko du; interesdunek Batzar Nagusiari gorako errekurtoa aurkezteko eskubidea izango dute.

### 35. artikulua

Bazkide guztiek indarreko estatutuetan ezarritako xedapen guztiak bete behar dituzte, ezinbestean.

## BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK



JUSTIZIA ETA HERRI  
ADMINISTRAZIO SAILA  
Elkarleen Erregistroa

REPUBLICANO DE JUSTICIA  
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA  
y de las Asociaciones

## 36. artikulua

Honako eskubide hauek ditu bazkide orok:

1. Elkarteei buruzko Legearen edo Estatutuen aurkako erabaki eta jardunen aurka egitea, egutegiko berrogei eguneko epearen barruan, demandatzaileak aurkaratutako erabakiaren edukia jakin duenetik, edo jakiteko aukera izan duenetik, zenbatzen hasita.
2. Elkarteko gobernu- eta ordezkaritza-organoen osaeraren, kontu-egoeraren eta jardueraren garapenaren inguruko informazioa jasotzea.
3. Edozein unetan ere, Elkarteko gainerako kideak nortzuk diren, diru-sarrerara eta gastuen kontuak zertan diren eta elkartearen jardueraren garapena zein den jakitea, datu pertsonalak babesteko araudiari jarraiki.
4. Batzar Nagusietan parte hartzeko deitua izatea, eta Batzar Nagusietan hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea baliatzea; horretarako beste kideren bati eman ahal izango dio bere ordezkaritza.
5. Elkartearen zuzendaritza-organismoetan parte hartzeko eskubidea egungo Estatutuen arabera, organo horietarako hautesle eta hautagai izanda.
6. Indarrean dagoen legerian aurreikusitako bazkideen fitxategian agertzeko eskubidea, eta Elkartearen ikurra erabiltzekoa, halakorik badago.
7. Estatutuen eta Barne Araudiaren ale bat edukitzeko eskubidea, halakorik izanez gero, eta zuzendaritza-organoei eskaerak eta kexak aurkeztekoa.
8. Gizarte-ekintza kolektiboetan parte hartzeko eta bazkide guztien erabilerarako diren tokiak erabiltzeko eskubidea, hala nola lokal soziala, liburutegiak eta abar.
9. Esan behar dituenak idazki bidez adierazteko eskubidea, bere aurkako diziplina-neurriak hartu aurretik entzun diezaioten, eta neurri horiek eragiten dituzten arrazoiei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea; bazkide gisa dituen betebeharrak ez bete izanean soilik oinarrituko dira neurri horiek.
10. Edozein unetan baja hartzeko eskubidea, behin hartu ondoren bete gabe dauden konpromisoak alde batera utzi gabe.

## 37. artikulua

Honako hauek dira bazkideen betebeharrak:

1. ZUZENDARITZA BATZORDEAREN eta BATZAR NAGUSIEN erabakiak betetzea.
2. Estatutuen arabera bazkide bakoitzari dagozkion kuotak, derramak eta bestelako ekarpenak ordaintzea.
3. ELKARTEAREN xedeen alde lan egitea.
4. Estatutu hauek betetzea.

## BAZKIDE IZAERA GALTZEA

## 38. artikulua

Bazkide-izaera galduko da:

1. Pertsona juridikoen desagiteagatik edo heriotzagatik (horrelakorik badago).
2. Borondatezko banantzeagatik.
3. Zigor bidezko banantzeagatik, zigorraren arrazoia honako hauetako bat baldin bada: Estatutuetatik eta Batzar Nagusiak edo Zuzendaritza Batzordeak behar bezala hartutako erabakietatik datozen betebeharren ez-betetze larri eta behin eta berriro gertatua.

ZIGOR ARAUBIDEA



39. artikulua

Zuzendaritza Batzordeak bazkideak zigortu ahalko ditu Estatutuak edo Batzar Nagusiaren edo Zuzendaritza Batzordearen erabakiak behin eta berriz urratzeagatik.

Eskubideak hamabost egunetik hilabetera bitartean etetetik behin betiko banantzerainokoak izan daitezke zigorrak, hurrengo artikuluetan ezarritako baldintzetan.

Horretarako, zigortzeko modukoak diren jokabideak argitzeko ikerketa bat irekitzeko erabakia har dezake presidentek. Jardunak aurrera eramatea Idazkaritzaren ardura izango da, eta Zuzendaritza Batzordeari proposatuko dio neurri egokiak hartzea.

Zuzendaritza Batzordeak izango du zigorrak jartzeko ahalmena, idazkariaren parte-hartzerik gabe, idazkaria instrukzio-organoa den heinean, eta interesdunari esateko zer duen entzun beharko dio aurretik. Erabaki hori arrazoitua izango da betiere, eta horren aurkako errekurtsioa Batzar Nagusiari aurkezteko aukera izango da.

40. artikulua

Bazkide bat elkartetik banantzeko ustezko arrazoi baten eraginpean erortzen bada, Estatutu hauetatik eratorritako betebeharrak edota Batzar Nagusiak edo Zuzendaritza Batzordeak behar bezala onartutako erabakiak nahita, behin eta berriz eta larriki ez betetzeagatik, presidentek idazkariari izapide jakin batzuk abian jartzeko agindua eman diezaioke dagokion informazioa lortzeko, eta, informazio hori aztertutik, presidentek jardunak artxibatzeko agindua emateko edo banantzeko zigor-espedientea hasteko aukera izango du.

41. artikulua

Banantzeko zigor-espedientea hasten bada, idazkariak, gertakariak egiaztatu ondoren, idazki bat igorriko dio interesdunari, egozten zaizkion karguen berri emateko, eta interesdunak erantzuteko aukera izango du, hamabost eguneko epean egokituz jotzen duena alegatuz. Nolanahi ere, egun horiek amaitutakoan gai hori Zuzendaritza Batzordearen lehen bilkuraren gai-zerrendara bilduko da, eta Batzorde horrek egokituz jotzen duena erabakiko du, espedientearen instruktore gisa jardun duen idazkariaren botorik gabe.

Banantze-erabakia jakinaraziko zaio interesdunari; era berean, egiten den lehen Ezohiko Batzar Nagusiaren horren aurkako errekurtsioa jarri ahal izango duela ere jakinaraziko zaio, eta Batzar Nagusi hori ez bada hiru hilabeteko epean egiten, propio egin beharko da horretarako. Bitartean, Zuzendaritza Batzordeak inputatuari bazkide gisa dituen eskubideak etetea erabaki ahal izango du, eta Zuzendaritza Batzordeko kide bada, karguaren jarduna etetea ere dekretatu ahal izango du.

Banantze-espedientea Batzar Nagusiari aurkeztean bazaio, horren laburpena idatziko du idazkariak, inputatuak Batzar Nagusiari aurkeztutako idazkiaren berri eman diezaion Zuzendaritza Batzordeak Batzar Nagusiari, bai eta gertaeren berri behar bezala eman dezan ere, Batzarrak dagokion erabakia har dezan.

42. artikulua

Banantze-erabakia —betiere arrazoitua behar duela izan kontuan hartuta— interesdunari jakinarazi beharko zaio, eta hark Epaitegietara jo ahal izango du dagokion eskubidea baliatuta, erabakia Legearen edo Estatutuen aurkakoa dela irizten badio.

## 43. artikulua

Bazkidearen borondatez edo zigorraren ondorioz bazkideari Elkartetik bananduta dagoela jakinaraztean, Elkartearetik betebeharrak bete ditzan eskatuko zaio baldin eta hark betebeharren bat bete gabe badu.



JUSTIZIA ETA HERRI  
ADMINISTRAZIO SAILA  
Elkarteen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA  
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA  
Registro de Asociaciones

## LAUGARREN KAPITULUA

## FUNDAZIO ONDAREA ETA AURREKONTU ARAUBIDEA

## 44. artikulua

ELKARTE honek ez du bat ere ondarerik, inolako ondasunik ez duelako. ELKARTEAK honako baliabide hauek ditu bere gastuei erantzuteko:

- Bazkideen aldizkako kuotak.
- Dagozkion ondasun eta eskubideen emaitzak, baita legez jaso ditzakeen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
- Zuzendaritza Batzordeak egitea erabakitzen dituen legezko jardueren bidez ElkarTEak lortzen dituen diru-sarrerak, betiere Estatutuen helburuen barruan.

Elkartze- eta ekonomia-ekitaldia urtekoa izango da, eta urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko da.

ElkarTEak bere ekonomia-jardueren ondorioz (zerbitzu-imateak barne) lortutako etekinak elkartearen xedeak betetzera baino ezin daitezke bideratu, eta inondik inora ezin izango dira banatu bazkideen edo ezkontideen artean, ezta bazkideekin antzeko afektibitate-harremana izanik bazkideekin bizi direnen artean ere. Era berean, etekin horiek ezin izango zaizkie doan laga irabazi-asmoa duten pertsona fisiko edo juridikoei.

## BOSGARREN KAPITULUA

## ESTATUTUEN ALDAKETA

## 45. artikulua

Bazkideen ezohiko Batzar Nagusiak erabaki beharko du Estatutuen aldaketa, behin batzarra horretarako propio deitu ostean. Zuzendaritza Batzordeak Ponentzia bat osatuko du, hiru bazkidek osatutakoa, aldaketa-proiektuaren idazkuntza egin dezan, Batzordeak emandako jarraibideei jarraiki, eta dagokion proiektua noiz egon beharko lukeen amaituta finkatuko da.

## 46. artikulua

Behin aldaketa-proiektua adierazitako epean idatzi ondoren, Zuzendaritza Batzordeak egiten duen lehen bilkuraren Gai Zerrendaren barnean hartuko du presidentearak, eta onartu egingo da edo, hala badagokio, Ponentziari itzuliko dio, berriz azter dezan.

Onartuz gero, Zuzendaritza Batzordeak egiten den hurrengo Batzar Nagusiaren Gai Zerrendaren barnean hartzea erabakiko du, edo horretarako Batzarra deitzea erabakiko du.

## 47. artikulua

Batzarraren deialdiarekin batera Estatutuen aldaketaren testua igorriko da, bazkideek egokitzen irizitako zuzenketak helarazi diezazkioten Idazkaritzari, eta horien berri emango zaio Batzar Nagusiari, betiere bilkura egin baino zortzi egun lehenago Idazkaritzaren esku badaude.

Modu indibidualean edo kolektiboan egin ahal izango dira zuzenketak, idatzita gauzatuko dira eta beste testu baten alternatiba bilduko dute. Zuzenketak buruzko bozketaren ostean, Batzar Nagusiak estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta estatutuak Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatu arte erabakiak ez die hirugarrenei eragingo.

JUSTIZIA ETA HERRI  
ADMINISTRAZIO SAILA  
Elkarteen Erregistroa

## SEIGARREN KAPITULUA

### ELKARTEAREN DESEGITEA ETA ONDARE SOZIALAREN APLIKAZIOA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA  
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA  
Registro de Asociaciones

#### 48. artikulua

Honako arrazoi hauengatik desegingo da ELKARTEA:

1. Bazkideen borondateari jarraiki, hori erabakitzen badute horretarako deitutako ezohiko Batzar Nagusi baten barruan.
2. Estatutuetan finkatutako epea edo baldintza bete delako.
3. Beste elkarteren batek xurgatu duelako edo beste elkarte batzuekin bat egin duelako.
4. Legeak ezarritakoaren arabera gutxienezko bazkide kopurua lortu ez duelako.
5. Epe judizial irmo baten bitartez desegitea erabaki delako.
6. Elkartearen helburu sozialak betetzea ezinezkoa delako.

#### 49. artikulua

EZOHIKO BATZAR NAGUSIAK erabakiko du ELKARTEA desegitea, eta ZUZENDARITZA BATZORDEAK dagokion likidazioa egingo du; soberakinak badago, Errenteriako JESUSEN BIHOTZA ZAHARREN EGOITZARI emango zaio.

### XEDAPEN GEHIGARRIA

#### 50. artikulua

Barne Araudia onartu ahal izango du Batzar Nagusiak, Estatutu hauen garapen gisa, eta horrek ez ditu ezein kasutan ere aldatuko horietan bildutako arauak.

LEHENDAKARI

IDAZKARI

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>Estatutu hauek itus onetsi dira, Eusko Autonomia Erkidegoko Elkartearen Errolda Nagusiaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 29ko 145/2008 Dekretuan eta horiekin bat datuzen gainontzeko arauetan zehazitutako ondorioetarako.</p> <p>2012 SET: 12</p> <p>En <i>[Signature]</i> a <i>[Signature]</i> de <i>[Signature]</i> de 20 <i>[Signature]</i></p> <p>ERROLDAKO ARDURADUNA <i>AS-R.P.G-61</i></p> | <p>Vistos los presentes Estatutos, a los efectos determinados en el Decreto 145/2008, de 29 de julio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro General de Asociaciones del País Vasco y demás normativa concordante.</p> <p>2012 SET: 12</p> <p>En <i>[Signature]</i> a <i>[Signature]</i> de <i>[Signature]</i> de 20 <i>[Signature]</i></p> <p>EL ENCARGADO/A DEL REGISTRO</p> |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
JUSTIZIA ETA HERRI  
ADMINISTRAZIO SAILA  
Elkarteen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA  
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA  
Registro de Asociaciones